

7. GAIA. NEKEA: TENTSIO MULTIAXIALA

Erabaki ezazu baieztapen bakoitza egiazkoa ala faltsua den:

- 1) Tentsio-egoera multiaxial bat neke-egoeran aztertzea ikerketa aktiboaren eta eztabaidaren gaia da, hain aldagai kopuru handiak parte hartzen baitute, eta horrek zaildu egiten ditu neke-saiakuntza esperimentalak eta emaitzen interpretazioa.
- 2) Tentsio-egoera multiaxial sinplea deritzo tentsio nagusi guztiek balio berdina duten egoerari; hala ez bada, tentsio-egoera konplexua da.
- 3) Tentsio-egoera multiaxial sinpleetan, tentsio nagusietako bat ere ez da iristen aldi berean balio maximora, nulura eta minimora, eta horrek asko errazten du nekearen azterketa.
- 4) Batez besteko tentsioak + tentsio alternoak dituen egoera multiaxial sinple bat neke-egoeran aztertzeko, $\sigma_{1,eq}$ da jatorrizko $\sigma_{m1}-\sigma_{r1}$ tentsioaren N zikloetako hutsegitearekiko baliokidea den tentsio estatikoa.
- 5) Gai honetan erabilitako azterketa-prozedurak ez du balio bizitza infinituko kalkuluetarako.
- 6) Ez da ohikoa piezen gainazalean tentsio triaxialak egotea.
- 7) Tentsio tangenziala soilik duen tentsio-egoera bat uniaxiala da.
- 8) Sinkronismorik egon ezean, arazoa ez litzateke prozedura berarekin konponduko.